

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 42/2019 Foru Dekretua, irailaren 10ekoa. Onespena ematea abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Arabako Hirigintza Batzordearen osaera aldatzeari**

Abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/1999 Foru Dekretuaren bidez, Arabako Hirigintza Batzordea eratu zen, zeina Arabako Foru Aldundiko koordinazio eta aholku organoa baita hirigintza kontuetan, eta Hirigintza eta Ingurumen Zuzendaritzari atxiki zitzaion. Hainbat foru sailletako ordezkariak osatzen dute batzorde hori.

Dekretuak zenbait aldaketa izan ditu haren indarraldian zehar, eta Arabako Hirigintza Batzordearen osaera egokitzeko egin dira guztiak, aurreko legealdietan Foru Aldundiaren sailletan egindako aldaketak kontuan izanik.

Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, Foru Aldundiaren sailen egitura zehaztu da 2019-2023 legealdirako. Dekretu horrek hamaseigarren xedapenean dioenez, Foru Gobernu Kontseiluak izan ezik, foru administrazioko gainontzeko kide anitzeko organo guztiek egun dituzten kideekin jarraituko dute beren eskumenekoak diren gaiak jorratzen. Dena den, kontuan hartu behar dira Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 10. artikuluan Foru Gobernu Kontseiluari aitortzen dizkion ahalmenak.

Foru sailen kopurua eta eskumenak aldatuz gero, kide anitzeko organoak (besteak beste, Arabako Hirigintza Batzordea) sailen egitura berrira egokitu behar dira.

Arabako Hirigintza Batzordearen osaeraren aldaketa hori, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko 52/1992 Foru Arauak 38., 40. eta 73. artikuluetan sail bakoitzari orokorrean esleitzen dizkion ahalmenen esparruan, sail bakoitzaren esku utzitako administrazio jardura aintzat hartuta egingo da; dagokion diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluaren foru dekretu bidez egin ere.

Horregatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea abenduaren 14ko Diputatuen Kontseiluaren 155/1999 Foru Dekretuaren hirugarren apartatua. Aurrerantzean ondoko testua izango du:

“Hirugarrena. Batzordearen osaera.

1. Arabako Hirigintza Batzordea honako kide hauek osatuko dute:

Lehendakaria: Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaria.

Kideak: Zuzendaritzako edo haren mailaren pareko ordezkari bat, dagokion saileko titularrak izendatua, administrazio arlo hauetako bakoitzeko:

- Bide azpiegiturak.
- Nekazaritza.
- Lurralde oreka.
- Kultura.

2. Batzordeko kide izango dira, halaber, Euskadiko Udalen Elkarteko (EUDEL) ordezkari bat, Arabako Kontzejuen Elkarteko (AKE) ordezkari bat eta Lurralde Historikoko lehen sektoreko sindikatu garrantzitsueneko ordezkari bat.

3. Titularren ordezekoak izendatzeko prozedura berari jarraituz, kide bakoitzaren ordezeko bana izendatuko da. Ordezko horrek zuzendari edo zerbitzuburu mailako lanpostuan jardun behar du.

4. Honako hauek batzordean hitza izango dute, baina botorik ez:

– Batzordeko idazkaria, Ingurumen eta Hirigintza zuzendariak izendatuko duena.

– Espediente bati buruzko txostena egin behar bada, baina espedienteak hizpide duen gaiaren sail eskudunak karguagatiko kideen artean ordezkari ez badu, sail horretako ordezkari bat egongo da.

– Udalerri jakin bati eragiten dion espedienteari buruzko txostena egin behar bada, udal horretako ordezkari bat egongo da.”

Bigarrena. Indargabetuta geratzen dira dekretu honetan xedatutakoaren aurka doazen maila bereko edo apalagoko xedapenak.

Hirugarrena. Dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Gasteiz, 2019ko irailaren 10a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*

**JOSEAN GALERA CARRILLO**